

Lehenbiziko pertsona eta «planeta eria», Ikuspuntu jaialdiaren hemezortzigarrenean

- 80 filmetik gora emanen dituzte Iruñeko Ikuspuntu jaialdiaren aurtengo aldiari, martxoaren 11tik 16ra.
- Su Friedrich eta Joel Akafou zinemagileei eskainiko diete Fokuak atala, haien ibilbideei aitortza egiteko.



ZINEMA. Manuel Asin eta Teresa Morales de Alava Ikuspuntuko arduradunak, eta Rebeca Esnaola Kultura kontseilaria (erdian). IÑIGO URIZ / FOKU

Uxue Rey Gorraiz

Iruñea — Jadanik ate joka da Ikuspuntu Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiaren XVIII. aldia: astelehenean lotuko zaio bideari, hilaren 11n, eta 16ra arte iraunen du. Hori hala, Iruñeko festibalaren aurtengo egitarauari buruzko xehetasun guztiak aletu dituzte gaur, azkenik, antolatzaile taldeko ordezkariak. Besteak beste, dagoeneko posible da programazioa zenbakitan bistaratzea: 80 film, 65 saio, hamar lehiakide eta 70 bat gonbidatu. Hitz gutxitan ere bai, bada festibalaren muina laburtzea, zuzendari artistiko Manuel Asinen arabera: «Lehenbiziko pertsona, memoria, planeta eria eta generoa».

Iruñeko sei tokitan egingen dituzte egitarauan bildutako jarduerak eta emanaldiak: Baluartean, Golem zinema aretoetan, Nafarroako Fimotekan, Kon-

destablearen jauregian, Mendigorriko Civivoxen eta Altzuzako (Nafarroa) Oteiza museoan.

Aurrez iragarria zenez, festibalaren Sail Ofizialean hamasei herrialdetako 23 lan izanen dira aurten, baina horien arteko hiru ez dira sariak erdiesteko lehian. Hain zuzen, lehiatik kanpo ariko diren hiruretako bat da Oskar Alegriaren azken lana: *Zinzindurrunkarratz* (2023). Hori da Sail Ofizialean jasoa den Euskal Herriko film bakarra, eta, hain zuzen ere, hark zabalduko du jaialdia astelehenean, 19:30ean. Dena dela, inaugurazio ekitaldian ez dute filma jatorrizko bertsioan emanen —hau da, euskaraz—, gaztelaniaz baizik. Martxoaren 13an emanen dute jatorrizkoan, eta filmak hori izanen du euskarazko estreinaldia, hain justu. Ondotik, solasaldia egingen dute Alegriak eta Eider Rodríguez idazleak, lanaren aitzakian.

Hortaz, guztira hogeit hamar lan ariko

dira Ikuspunturen sariak irabazteko lehian; hamabi film luze eta zortzi film labur, zehazki. Jaialdiko zuzendari artistikoak nabarmendu duenez, denera 800 film aurkeztu zituzten, eta lan «zirraragarria» izan da horien guztien arteak aukeraketa egitea. Bistartuko dituzten kalitatea goraiatu, eta zehaztu du bost lanek estreinaldi absolutua izanen dutela Ikuspuntun, esate baterako. Gainera, Asinek azpimarratu duenez, emanen diren filmen zuzendariak askotariko soslaiak dituzte; badira «atzean urteetako ibilbidea duten beteranoak», baina badira zuzendari «gazte-gazteak» ere, «oraindik aitortza handirik jaso ez dutenak». Eta horiek guztiak festibalean biltzea «poztekoa» da, zuzendariaren iritziz.

Asini nekeza zaio egitarauko film sorta bakarra nabarmentzea. Edonola ere, aitortu du aurtengo egitarauan franko islatu dela Argentinako ez-fikziozko zinemak

egun duen «bizitasuna». Hain zuzen, herrialde horretako lau lan emanen dituzte Sail Ofizialean, eta horiei buruzko zenbait hitz esatearekin batera zerrendatu ditu Asinek hiru, miresmenez: *Retrato de Mondongo* (Mariano Llinas) filma eta zuzendariak haren bidez eginiko «apustu erradikala»; Julieta Secoren *Corazón embalsamado* lan «urratzailea»; eta *La vida a oscuras*, «Enrique Bellanderen zuzendaritza zehatzarekin».

Ex soilik atzera

Ikuspunturen hemezortzigarren aldiak dakarren nobedade bat iragarri dute Iruñeko aurkezpenen. Orain arte, jaialdiak Atzera Begirakoak izeneko atal bat izan du, aldiro zinemagile bati edo bati baino gehiagori aitortza egiteko, haren edo haien ibilbideari erreparazio eginez. Ordea, atalari izena aldatu diote orain: Fokuak izanen da aurrerantz. «Ez

baitiegu soilik autore historikoei erreparatu nahi; garaikideak ere nahi ditugu atal honetan», zehaztu du Asinek. Aurten hiru «foku» antolatu dituzte, hala: bata Su Friedrich zuzendari estatubatuarri eskainia da; beste bat Boli Kostako Joel Akafou zinemagileari begirakoa; eta hirugarrena gai bati lotua izanen da, zuhaitzei buruzkoa, hain zuzen.

«Su Friedrich da, egun, abangoardiako zinema estatubatuarren ezinbesteko figuratoko bat», deskribatu du Asinek zinemagile, eta gaineratu hain justu ere emakume izateagatik izan zaiola zaila «behar adinako oihartzuna lortzea». Horretarako bidea lantzen ahaleginduko dira Ikuspuntun, *Lotzen gaituzten begiztak* izeneko programaren bitartez. «Ikusiko da, adibidez, nolako indarra duen argazkilaritzak haren filmetan, nolako autorretratuak egiten dituen, nolako izan den haren militanzia feminismoan», azaldu du Asinek. Friedrichen zortzi film emanen dituzte guztira, lau saiotan, eta horietako hiru, 16 milimetrotan.

Joel Akafouri dagokionez, bi lan emanen dituzte Ikuspuntun, *Haute Bourgeoisie Française-aren abentura klandestinoak* izeneko programan. Bi filmek «diptiko» bat osatzen dute, Asinen irudiko. Bietan pertsona berbera baita protagonista, eta istorio baten parte baitira biak. Afrikatik alde egin eta Europara migratzen duen gazte baten istorioa da ardatza. Asin: «Larria eta mingarria da, eta oso premiazkoa gaur egun».

Ohi denez, filmen emanaldiak ez ezik, askotariko beste jarduerak ere eskainiko ditu Ikuspuntuk: hala nola mahai inguruak, tailerrak eta musika emanaldiak. Bestalde, Oteiza museoarekin elkarlanean, Nestor Basterretxeari eskainitako jarduerak sorta bat antolatu dute Altzuzan. Artistaren jaiotzaren ehugarren urteurrenaren karietara, haren zenbait film labur emanen dituzte. Gainera, antolatzaileek iragarri dute programa Nafarroatik kanpoko beste areto batzuetara eramanez dutela aurrerantz; Gasteizko Artium museora, kasurako. ●